

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko irailaren 17tik 23rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/09/22

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** Gipuzkoako Eraikuntza eta Obra Publikoaren sektoreko hitzarmen kolektiboa. **5786 xedapena - 36 or.**

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/09/23

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko irailaren 12koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Espainiako burtsa eta merkatuen hitzarmen kolektiboa. **15513 xedapena - 50 or.**
- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko irailaren 12koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den farmaziako espezialitateen eta produktuen banatzaileen merkataritzarako Estatuko hitzarmen kolektiboa. **15514 xedapena - 36 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/09/17

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Telekomunikazioak.** Akats-zuzenketa, honako lege honena: 11/2022 Lege Orokorra, ekainaren 28koa, Telekomunikazioei buruzkoa. **15168 xedapena - 1 or.**
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa.** Akats-zuzenketa, honako lege honena: 15/2022 Legea, uztailaren 12koa, tratu berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako integrala. **15169 xedapena - 1 or.**

2022/09/19

- **OSASUN MINISTERIOA. Mugak. Osasun kontrola.** Ebazpena, 2022ko irailaren 15ekoa, Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, Espainiako sarrera-puntuetan egin beharreko osasun kontrolei buruzko 2022ko apirilaren 1ekoa aldatzen duena. **15206 xedapena - 2 or.**

2022/09/20

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. Aireko nabigazioa.** 728/2022 Errege Dekretua, irailaren 6koa, zeinaren bidez Europako araudiaren xedapen osagarriak ezartzen diren aireontzi zibiletako hegaldietako langileen titulu eta lizentzien alorrean, bai eta zarataren ondoriozko murrizketa operatiboak ere, eta zeinaren bidez honako hauek aldatzen diren: 660/2001 Errege Dekretua, ekainaren 22koa, aireontzi zibilen ziurtagiriak eta haiekin lotutako produktu eta piezenak arautzen dituen; 1516/2009 Errege Dekretua, urriaren 2koa, aireko zirkulazioaren kontrolatzailearen erkidegoko lizentzia arautzen duena; 1952/2009 Errege Dekretua, abenduaren 18koa, zeinaren bidez baldintzak ezartzen diren hegaldi- eta jarduera-denboraren mugei buruz eta aire-garraio komertziala egiten duten hegazkinetan zerbitzu-tripulazioek atsedean hartzeko baldintzei buruz; 1133/2010 Errege Dekretua, irailaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen den aerodromoetako hegaldien informazioari buruzko zerbitzuaren hornidura (AFIS); eta 1238/2011 Errege Dekretua, irailaren 8koa, aireportu-plataforman zuzendaritza zerbitzua arautzen duena. **15286 xedapena - 28 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. Errepide bidezko garraioak.** 729/2022 Errege Dekretua, irailaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen den errepide bidezko garraioan gidatzeko eta atsedean hartzeko denboren arauen eta takografoa erabiltzeko arauen nahitaezotasunean salbuespenak ezartzen dituen maiatzaren 18ko 640/2007 Errege Dekretua. **15287 xedapena - 5 or.**

2022/09/21

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Premiazko neurriak.** 17/2022 Errege Lege-dekretua, irailaren 20koa, premiazko neurriak hartzen dituen energiaren esparruan, kogenerazio-instalazioei ordainsarien erregimena aplikatzean, eta aldi baterako murrizten duena zenbait erregairen erkidego barruko entregei, inportazioei eta erosketei aplika dakiekeen balio erantsiaren gaineko zergaren tasa. **15354 xedapena - 26 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/09/19

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. ARABAKO FORU ALDUNDIA.** FORU AGINDUAK (NEKAZARITZA SAILA). 299/2022 Foru Agindua, irailaren 9koa, zeinak Arabako Lurralde Historikoan pinu beldarraren (*Thaumetopoea pityocampa*) izurritea adierazten duen eta haren aurrakako jarduerak herri onurakotzat aitortzen duen 2022. urtean. **2547E xedapena - 3 or.**

2022/09/23

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. Batzar Nagusiak.** FORU ARAUAK. 18/2022 Foru Araua, irailaren 12koa, 10/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 2koa, baliozkotzeko dena, Arabako zerga araudira egokitzeko Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketak. **2572E xedapena - 1 or.**
- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. Batzar Nagusiak.** FORU ARAUAK. 19/2022 Foru Araua, irailaren 12koa, 11/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 2koa, baliozkotzeko dena, egungo inflazio egoerari aurre egiteko zerga neurriak onesteko. **2573E xedapena - 1 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/09/21

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 444/2022 Foru Agindua, irailaren 15ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita 412/2014 Foru Agindua, uztailaren 7koa, zergapekoen erroldan alta hartzeko, eta helbidea, datu pertsonalak eta harremanetarakoak aldatzeko 030 aitortzen duen eredu onesten duena. **5801 xedapena - 10 or.**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 443/2022 Foru Agindua, irailaren 15ekoa, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga autolikidatzeko 60-A, 60-T eta 60-S ereduak onetsi eta horiek nola aurkeztu eta diru-sarrera nola egin ezartzen dituen. **5803 xedapena - 26 or.**

2022/09/22

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** Ebazpena, 2022ko irailaren 16koa, Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkariarena, 2023. urterako Gipuzkoako Lurralde Historikoko tokiko jaiegunen egutegia ezartzen duena. **5800 xedapena - 4 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2

HENAO, 26 - BILBAO